**IX. ROLLESKI IGOERA BIHAR HERNIALDEN**
Alpino Uzturre mendi elkarteak antolatuta, klasiko eta skating eran lehiatuko dira parte-hartzaileak, 16:00etan › 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info
Ostirala 2009-10-16
VII.URTEA 1.802.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA
WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO


Zizurkil Goian egingo dute azoka; aurkezpenan, «baserritarren lana» goraipatu zuten, atzo. E. MAIZ

# PRODUKTU FRESKOAK ESKURATZEKO AUKERA XII. AZOKA BEREZIAN

**ZIZURKIL** Etzi, 11:00etatik aurrera, artisautzako 24 postu eta jakien 31 postu izango dira, besteak beste; egitarau osatua aurkeztu dute 5

# 'Cocidito madrileño'-ren bigarren zatia, bihar Leidorren

**TOLOSA** Antzezlan arrakastatsuaren bigarren zatiaren estreinaldia egingo dute, 20:30ean 3

# Arrospide, Urrezko Aizkolari Ligako finalean ariko da

**LEABURU-TXARAMA** Lopez Azpilikueta, Nazabal eta Larretxea izango ditu arerio bihar Altsasun 6

**PEIO OLANO** LIZARTZARRA

## «Hiru aukera ditut; absoluzioa, 2 urte edo 6 urteko espetxe zigorra»

**LIZARTZA** Regina Otaolak bi urteko espetxe zigorra areagotzeko eskaera egin du; hamabost egun barru jasoko du ebazpena Olanok 6

denda h

eskura ezazu...
HITZAren jaka beltza!
neskentzat nahiz mutilentzat!
harpidedunak 50€, besteak 60€
**HITZA**ren produktuak salgai
Tolosako HITZAren egoitzan salgai


Proba ezazu gure baserriko haragia
**5 Kg-ko sorta 58€tan** (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.
Egin eskaria
eta etxera eramango dizugu:
943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org
**Dendak:** Bulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)

# G Gutunak

## 30 urte antolatzen eta borrokatzen

2009ko urte honetan, Euskal Herriko gazte erakundea sortu zenetik 30 urte betetzen dira. 1979ko maiatzean lehen urratsak ematetik, hamaika izan dira bide osoan zehar pilaturiko esperientziak. Aurtengoan, beraz, iraganari begiratuz eta bertatik ikasiz, aurrera begirakoan ditugun apustuak indartuz ospatuko dugu urteurrena.

Herri honen historia hurbilean intentsitate handiz bizitako garaietan ikusi zuen argia Jarraik. Militarrek gidaturiko trantsizio garaiaren urteetan jaio zen, geroago trantsiziotik eratorritako egoera zein erakundeen desgasterako tresna baliagarri izango zena. Bestetik, egoera politiko berri hartan, sasi demokraziaren aurrean *apurketa demokratikoaren* aldeko mugimendua Ezker Abertzale bezala osatzen eta egokitzen ziharduen garai haietan, gazteriak errealitate berezi bezala leku hartuz bertan. Azkenik, garai sozial berezian agertuko da, zeinetan gazteria sistemaren jo puntuan egongo den, bai ezartzen joango den prekarietate ekonomiko zein sozialaren bidez eta zehatzago droga berrien sartze masiboarekin.

Testuinguru zehatz horretan egindako agerpenak egundoko iraultza suposatu zuen antolakuntzaren ikuspegitik, ordura arte erreferentzia ideologiko gabe edota bestelako herri eragile ezberdinetan lanean ziharduten gazteei borrokarako esparru bat eskainiz. Momentu hartatik aurrera, tximista baten abiadan joan ziren Jarraiko taldeak sortzen herri zein auzoetan.

Ibilbide osoan zehar momentu zein joera ezberdinetara egokitzen jakinez eta autokritikarako gaitasun handi batekin gorputza hartuz joan da. Bidean, zenbatu ezinak diren garaipenak metatuz, era honetan gazte erakundea askapen borrokaren kide berrien iturri agortezina izan da.

Gazteen errealitate zehatzaren kontzientzia hartzetik, honen araberako analisiak egin eta gazteen arazoak borrokatu eta hauen aldeko alternatibak eratzeko behar beharrezko tresna izan da. 80. hamarkadan drogen sarrera masiboaren aurrean izandako jarrerarekin edota beranduago soldaduskaren aferan gazteria osoarekin batera egindako lana, gazte problematiken inguruan egindako lanaren adieraze ditugu. Baita, beranduago ere ETTekin, lan istripuak, AHT...

Gazte erakundea askapen mugimendu osoaren parte izanik, askapen prozesuak izan dituen beharretara egokitzen joan izan da eta horren adierazle Euskal Herria subjektu nazional gisa indartzearen ikuspegian emandako urratsetan aitzindari papera jokatu izana. Adibide nagusi dugu ezker abertzalearen lehen antolakunde nazionala gazte izatea, Ipar Euskal Herriko gazteak biltzen zituen Gazteriak erakundea eta Jarrairen arteko harremanetatik 2000. urtean lehen gazte erakunde nazionalak argia ikusi zuen: Haika.

Oro har, gazte erakundeak askapen prozesu orokorrari egindako ekarpena ukaezina da. Mugimenduaren harrobi izatetik harago, momentuan momentu mugimendu bezala eman beharreko pausoen akuilu izan da sarritan. Bai errepresioari aurre egiterako orduan, bai estatua presionatu behar izan denean edota herri eraikuntzan urrats erabakior zein eredugarriak emateko unean.

Egindako lana eta bereziki prozesu iraultzailean beteriko funtzioa, ez da inoiz izan etsaiaren gustukoa. Eta, beraz, independentziaren aldeko gazteriak ordaindu behar izan duena ez da batere merkea izan. Etengabeko aldagai bat izan da gazteriaren aurkako errepresioa, nahiz eta une batzuk gordintasunagatik memorian iltzatuak dauden. Hego Euskal Herria Zona Especial Norte bezala izendatua izan zenetik aurrera *Y taldeak* bezala deituriko muntaiak edota gazte antolakunde ezberdinen aurkako sarekadak bizi izan ditugu. Ehunka izan dira gorputz polizial ezberdinen eskuetan tortura lazgarriak ezagutu dituztenak, baita kartzela, erbestea...

Errepresio basatiaren aurrean baina, guztiz eredugarria izan da gazteriak emandako erantzuna. Bai erasoen aurrean emandako momentuko erantzunen bidez, zein gure helburuetatik aldendu gabe borrokari jarraipena emanez, atxilotutako lagunen lekua hartuz... edota Haikaren ilegalizazioaren ondotik Segi sortuaz.

30 urtetako borrokak askorako eman du. Ezker Abertzalearen 50 urtetako borroka ez da alperrik pasa eta orain mugimendu bezala hitz larriekin idatziriko helburu handiak lortzeko aukerak begi bistakoak dira.

Askapen borrokak urte luze batzuk daramatza bide gurutzean iltzaturik. Etsaia gogoz eta dituen bitarteko ankerrenekin ari da herri honen eskubideak betetzea ekar dezaten bideari atea ixten. Azken urteetan ikusi gabeko ofentsiba handian murgildurik daude, beren proiektuaren inposizioan lur eremuak irabaziz.

Beraz, testuinguru egokian ospatzen dugu 30. urteurrena. Batetik, nazio askapen borrokaren baitan urteetan egidako lanaren bidez estatuek eskaintzen duten ziklo errepresibo-autonomista berri baten aurrean herriaren hitza eta erabakiaren baina, baita independentziaren aldeko herri olatua eraikitzearen aldeko geroz eta ahots gehiago entzun direlako. Bestetik, sistema kapitalista erakutsi duen porrot estrukturala ikusirik, geroz eta aukera gehiago daudelako herri sektore eta borroka ezberdinak alternatiba sozialaren eta oso baten inguruan biltzeko.

Ditugun erronka orokor hauen guztien aurrean, gaur arte bezala, gazteok ezinbestekoa den erantzukizuna dugu. Inposatzen dizkiguten bizi ereduen aurrean, lan esplotazioa edota EREen aurrean, soldata miserable eta etxebizitza eskubidearen ukazioaren aurrean, inposaturiko proiektuen aurrean, hizkuntza zein ikastetxeetan historia arrotzaren inposizioaren aurrean... eremuz eremu eta bakoitzaren ahaletatik antolatu eta borrokatu behar dugu.

Inposizioari aurre egin eta atalez atal alternatiba txiki zein handiak abian jartzetik, bestelako eredu baten araberako errealitatea eratzea geure eskuetan dago; gazte herri askearen eraikuntza. Bakotzak bere eremutik bere harritxoa jarriz, borroka txikien bidez iraultza garatuz, independentzia gure eskuetan dago.

Honengatik guztiagatik, eta zu ere proiektu honen ezinbesteko parte zarelako, gazte erakundearen 30. urteurrena dela-eta, urriaren 24ean, Anoetan antolatu den eskualdeko gazteriaren Independetzia Egunera deitzen zaitugu, zein aurrerantzean askapen borrokak dituen erronka txiki zein handietan zure neurrira ekarria egitera ere. Ikusiko garelakoan... 30 urte eta independentzia ta sozialismoa lortu arte!

**Jokin Artola**
**(Gazte Independentistak).**

## Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburua den Rodolfo Ares jaunari

Pasa den ekainean, komunikabideen bidez zuri zuzendu nintzaizun, maiatzak 30ean Tolosako Udalak «terrorismoaren biktimei» egindako omenaldia zela eta.

«Gutun ireki» hartan, horrela bidali bainuen, zenbait galdera egin nizkizun, eta erantzunen ezak behartu nau lerro hauek idaztera.

Gogoratuko zarenez, idatzi hartan bai lehengo maila eta bigarren mailako biktimak, bai lehengo eta bigarren mailako herritarren existentzia salatzen nuen, nahiz eta legeak herritar guztiek eskubide berberak ditugula eta legearen aurrean denok berdinak garela dion.

Tolosan egindako ekimenean, gure hurbilekoak diren Joxean Lasa eta Joxi Zabala omendu ziren, besteak beste, eta nik zuri egindako galderen artean hauxe zegoen: ea Tolosako alkatea den Jokin Bildarratz, zuk horren ondo ezagutzen duzun hori, eta udal korporazio guztia atxilotuak eta jipoituak izango ziren, iaz beraien lagun eta senitartekook izan ginen bezala, eta baita orain 14 urte Tolosako kanposantuan izan ginen bezala; eta bukatzen nuen nire idatzia gure ahaideen galerarengatik guk ere sufritzen dugula esaten, eta eskubide guztia daukagula senitarteko eta lagunak garen heinean lore eskaintza bat egiteko.

Zure erantzun ezaren aurrean, eta Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren desagerketa eta torturaz eragindako erailketaren 26. urtemuga datorrela ikusirik, Benta Haundin beren omenez jarritako monolitoaren aurrean lore eskaintza bat egingo dugu gaur, urriak 16, arratsaldeko 19:30ean.

Zarauzko kanposantuan Francok Juan Paredes Manot *Txiki*-ren afusilamenduaren urtemugan bere hilobiaren aurrean senitartekoekin zuen poliziak hartutako jarrera ikusirik, eta abuztuaren bukaeran Joxi eta Joxeanen hilarrian agertutako pintaketen egileak diren *Falange y Tradicion*-en kontrako salaketa publikoaren aurrean hartutako «jarrera eza» ikusirik. Zein nolako erantzuna izango da zurea?

Mikel Zabala, orain urtebete atxilotua eta jipoitua, orain 14 urte Tolosako kanposantuan bezala.

**Mikel Gotzon Zabala.** Tolosa.

Akademia Pausoka
Hizkuntzak:
Arabiera, italiera, frantsesa eta ingelera
Maila guztiak
Irakasle gaituak
Errefortzu eskolak:
Letrak eta zientziak
Adin guztiak
Eguneroko jarraipena
Tamaina txikiko taldeak
Martin J. Iraola, 2 - behea
TOLOSA • Tel.: 943 67 24 48

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# K Kirol jarduera

## Gaur, ostirala, Tolosan

**Areto futbola**

- Usabalgo goiko kantxan, 20:30ean, probintzialeko 2. mailako partida: Laskorain-UDA Orly.
- Usabalgo beheko kantxan, 20:30ean, probintzialeko 3. mailako partida: Laskorain- Aralar kirolak.

## Bihar, larunbata, Tolosan

**Areto futbola**

- Usabalgo beheko kantxan, 11:30ean, jubenilak: Laskorain-Lauburu.

**Eskubaloia**

- Usabalgo beheko kantxan, 12:30ean, infantilak: Tolosa-Bergara.

**Futbola**

- Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, infantil txikiak: Tolosa CF-Koskas.
- Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, ohorezko kadete maila: Tolosa CF-Mundarro.
- Usabalgo futbol zelaian, 13:00etan, F8 infantilak: Anoeta-Hernani.
- Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, preferente maila: Tolosa CF-Allerru.
- Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, lurraldekako maila: Tolosa CF-Texas.

**Karatea**

- Usabalgo goiko kantxan, 15:00etatik 19:00etara, Gipuzkoako Karate Txapelketa.

**Saskibaloia**

- Usabalgo goiko kantxan, 09:00etan, infantil mutilak: Ipar Take-Easo 97.
- Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean. Infantil mutilak: Take Elec. Oria-Lek. Kadete mutilak: Aurrera Take-Zarautz.
- Usabalgo goiko kantxan, 12:00ean. Kadete emakumezkoak: Take Aralar-Ubigek BKL.
- Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan. Juniorrak: Take Orbela-Ordizia.
- Usabalgo beheko kantxan, 18:00etan. Seniorrak: Take-Goierri.

**Pilota**

- Beotibar pilotalekuan, 16:00etan, IV. Emakumea Pilotari Txapelketako hirugarren jardunaldia.

## Etzi, igandea, Tolosan

**Futbola**

- Berazubiko zelaian, 16:30ean, jubenilen liga nazionaleko partida: Tolosa CF - Romo.

@ **Zurea da hitza.** Eskualdeari buruzko berriak, iritziak, iradokizunak, kexak... sartzeko aukera duzu gure webgunean *Zurea da hitza* izeneko atalean. Norbere datuak sartzea ere komenigarria izaten da:

**www.tolosaldekohitza.info**


Tolosako Belate auzotik abiatuko dira parte-hartzaileak. ASIER IMAZ

# Bihar arratsaldean egingo da Hernialdeko IX. Rolleski igoera

**Kirolak »** Alpino Uzturre mendi elkarteak antolatuta, klasiko eta skating eran lehiatuko dira parte-hartzaileak.

ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre elkarteak antolatuta, bederatzigarren aldiz, Hernialdeko Rolleski igoera egingo da bihar. Tolosako Belate auzotik, 16:00etan abiatuko dira parte-hartzaileak. Proba estilo klasikoan eta skating eran egin ahal izango da.

Lasterketan parte hartu nahi dutenek modu ezberdinetan eman ahal izango dute izena. Alde batetik, elkartean bertan, bestetik, 685 77 65 04 telefonora deituta (arratsaldez) eta azkenik, posta elektronikoz *alpinouzturre@begira. com*en.Lasterketa korritzeko ezinbestekoa izango dute kaskoa parte-hartzaileek. Izen-ematea doakoa da, beraz ez dago ezer ordaindu beharrik.

Parte-hartzaileek 15:30erako Belaten egon beharko dute, dortsalak jasotzeko. Hala, 16:00etan, Skating eran korritu behar dutenak 16:00etan abiatuko dira hor bertatik. Klasiko eran lehiatuko direnak berriz, bost minutu beranduago abiatuko dira. 3,2 kilometro zeharkatu beharko dituzte kirolariek, Hernialdeko Bentatik, tren azpitik igaroaz.

Partaide guztiek kamiseta bat eramango dute etxera. Gainera, merienda emango diete, proba amaitu ostean.

Bi kategoriatan lehiatuko dira kirolariak. Alde batetik, helduak daude, 1993an edo lehenago jaiotakoak. Bestetik, gazteak, 1993az geroztik jaiotakoak. Helduetan, klasiko eta skating eran neska eta mutil irabazleek izango dute saria. Gazteetan berriz, berdin, era bakoitzean lehendabizi geratzen diren neska eta mutilek.

Lasterkariek egin beharreko lana ondorengoa izango da. Lehenengo zatian, 800 metro zeharkatuko dituzte. Bide hau laua da. Ondoren, 3,2 kilometroko igoera izango dute aurretik. 225 metroko malda du honek. Klasiko motako rolleskiekin korritzen dutenek igoera bakarrik egingo dute.

# Leidorren estreinatuko dute 'Cocidito Madrileño II'-a

**Kultura »**
Lehendabizikoak lortu zuen arrakasta ikusita, bigarrenarekin dator bihar Glu Glu produkzioak.

ERREDAKZIOA

Bihar estreinatuko dute *Cocidito madrileño* antzezlanaren bigarren zatia. Leidorren 20:30ean hasiko da estreinaldia. Irratian lehenengo, liburuan gero, eta orain, berriz, antzerkira eraman dute *Cocidito Madrileño* arrakastatsua. Erabilitako korteak gaztelaniaz zirenez, obra ere gaztelaniaz da, indarrari eta sinesgarritasunari eusteko.

Eskualdean ikusi ostean, Bilboko Arriagara eramango dute antzezlana. Zalantzarik gabe, aurten Euskal Herrian egongo den estreinaldirik entzunenetakoa izango da.



Aktore oso ezagunek hartzen dute parte antzezlan dibertigarri honetan. HITZA

Herriko jaiak antolatzen ari diren herritar batzuren arteko ikamikak dira lanaren oinarri. Erritmo oso azkarrean, eszena ugariz beteta, jai eta ekitaldiz osatutako saio bakan bat osatuz joango da. Baina, desadostasunak eguneroko gauza izango dira eta edozein erabaki eztabaidarako gai izango da. Hori dela eta, konpontzea asko kostako diren istiluak sortuko dira herritarren artean.

Aurreko lanak bezala, Radio Euskadiko *Mas que palabras* irratsaioaren izen bereko ataleko pasadizoak ditu oinarri bihar iluntzean estreinatuko duten antzezlanak.

Aizpea Goenagak eta Galder Perezek zuzenduko dute lana, eta, besteren artean, Ramon Merlo, Javier Anton eta Loli Astoreka izango dira taula gainean. Jaiak antolatu nahian dabiltzan herritarren rola jokatuko dute, eta edozein txikikeria dela medio hasiko dira eztabaidan. Haietan, eguneroko bizitzan ohiko diren gaiak izango dira eztabaida iturri: politika, kultura, homosexualitatea, futbola edota euskara, kasu. Pasadizo guztiak ere «kontzientzia satiriko gisa» antzeztuko dituzte datorren larunbatetik aurrera.

*Cocidito madrileño* antzezlanaren lehen zatia orain laupabost urte eman zuten, eta 60.000 ikusentzule baino gehiago izan zituen. Hark ere Javier Vizcainoren *Mas que palabras* saioko atala zuen oinarri. Liburu bat ere badute egina pasadizoekin.

# Matthias Becker-en eskutik Jazz Korala ezagutzeko aukera

**Kultura »** Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta ikastaro bat izango da asteburuan, Udal Musika Eskolan.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak ikastaro bat antolatu du asteburu honetarako. Oraingo honetan Matthias Becker Alemaniar maisu ospetsua izango da gidaria, eta Jazz Korala izango da jorratuko den gaia. Aipatu bezala, saioak bihar eta etzi izango dira, Eduardo Mocoroa Udal Musika Eskolaren egoitzan.

Jada, hainbat urte dira Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak ikastaro hau antolatzen duela Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren inguruan, ospe handikoa izanik. Horrela, beste probintziatatik etorritako ikasleak izaten dira sarri bertan.

Bihar 10:00etan hasiko da ikastaroa, eta egun guztian zehar jarraituko du. Hala ere, 14:00etatik 16:00etara atsedenaldia egingo dute bazkaltzeko. Etzi eguerdian, 14:00etan amaituko dira jardunaldiak.

Informazio gehiago nahi duenak, edo argibide gehiago behar dituenak 943 53 69 73 telefono zenbakira, hau da, Gipuzkoako Abesbatzen Federaziora deituta eskuratu dezake inongo eragozpenik gabe.

### Alemaniar maisu handi bat

Matthias Becker-ek Musika ikasi zuen bigarren mailako hezkuntzan, Zuzendaritza (diploma) Helmuth Rilling-ekin eta Musika Zientziak (Doktorea Ahozko Jazz-en).

1981tik irakaskuntza lanetan edo irakasle laguntzaile moduan lan egin du Alemaniako eta Europako beste herrialdetako.

1992tik musikari freelance moduan lan egiten, bereziki zuzendari, eta baita moldatzaile bezala ere, eta epaimahaikoa da abesbatza leihaketa nazional eta internazional askotan. Oso baloratuta dago zuzendari gonbidatu eta aholkulari musikal bezala Europa guztian zehar.

Abeslari gisa lehen saria lortu du alemaniar Bundeswettbewerb Gesan Ahots leihaketako Jazz sailan. Bere ahozko jazz Vokal total (Laukote eta Kombo) eta Soundsation (Abesbatza) taldeekin, hainbat sari nazional eta internazionalak irabazi ditu.

Matthias Becker-ek ahotsari, ahotsaren trebakuntzari eta konponketa koralei buruzko liburuak idatzi ditu eta Europako editorial desberdinak argitaratu dituzte. Oso baloratuta dago abesbatza/taldeetako ahots entrenatzaile eta zuzendari-aholkulari bezala Europa osoan zehar.

"Vocal Jazz Summit-en sortzaile eta zuzendari artistikoa da.

## Iragarki laburrak

**AURKITUTAKOAK**

■ **Arropa.** Larunbat iluntzean, hilaren 10ean, mutilentzako arropaz betetako poltsa bat aurkitu nuen Villabonako Olaederra kiroldegiaren ondoko zubian. Galdu duenak dei dezala 943 65 56 95 telefono zenbakira.

**LANA**

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakiak: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

**GALDUTAKOAK**

■ **Makila.** Urriaren 10ean Lizarrustin Leandro izena grabatua daraman makila galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala 635 74 40 82 edo 676 86 54 17 telefono zenbakietara. Aurkitzen duena sarituko da. Mila esker.

**SALGAI**

■ **Sutarako egurra.** Sutarako egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Interesatuak, harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 615 75 57 62.



Kantu Jiran parte hartzeko abesteko «gogoa» nahikoa da. ASIER IMAZ

# Kantu Jiraren saio berri bat egingo dute bihar arratsaldean

**Leitza** » Herritarrak eta ingurukoak gonbidatu dituzte Kantu Jirara, euskal abesti zahar eta berriak kantatzera.

A. IMAZ

Zalantza askoren ondoren, Kantu Jirarekin jarraitzeko asmoa azaldu dute hainbat herritarrek. Horren ondorioz, bihar Aurrera Elkartean euskal kantu zahar eta berriak abestuko dituzte, 19:00etatik aurrera.

**Kantu zale berrien bila**

Kantuak bezala, partaide zaharrez gain jende berria gonbidatu nahi izan dute Kantu Jiraren bultzatzaileek.

Aurrera Elkartean ikasturte berriko bigarren saioa burutuko dute bihar arratsaldean eta bertara hurbiltzen direnei lehenik kantu liburuxka bat luzatuko zaie. Ondoren euskal abestiak kantatzen hasiko dira. Orain arte musikaz lagundurik aritu izan ohi dira.

Bat gehiago izateko «gogoa» edukitzea nahikoa izanen dela azaldu dute ekimenaren sustatzaileek. «Hau da, Kantu Jiran parte hartzeko inork ez dezala pentsa izugarrizko ahotsik edo musika dohai berezirik eduki behar ditueník. Nahikoa du zaletasunarekin eta euskal kantuak abestuz ongi pasatzeko nahiarekin».

Gauzak horrela, oraindainoko saioetara joan ez denak ere, Aurreran kanturako ateak zabalik edukiko ditu biharkoan.




# LAB: «Herri honen ziklo politiko berria dago jokoan»

**Politika** » Eskualdeko hainbat herritan elkarretaratzeak egingo ditu gaur sindikatu abertzaleak.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko LAB sindikatutik langileei kalera ateratzea eskatu diete: «hurrengo egunotan izango diren mobilizazio orotan parte hartzera dei egiten dugu». Arrazoien artean «azken erasoak» eta hauen «zergaitiak» aipatu dituzte 6 puntuko agiri batean.

Eskualdeko hainbat herritan elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, 12:00etan eta 13:00etan.

Bihar berriz, euskal gehiengo sindikalak 17:00etan Donostiako Antiguo auzotik irtengo den manifestazioa antolatu du. ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek euskal langileriari eta gizarteari bertara joateko deia egin diete.

**1. «Urrats berrien aurka»**

LABek iragan astearteko «Garzonen eta Rubalcabaren erasoak» salatu nahi izan ditu lehenik, atxilotu guztiak askatzeko «exijituz». Gertaerak «independentzia helburu duen bidean, urrats berriak ahalbidetu behar dituen estrategiaren kontrako eraso moduan» kokatu ditu sindikatuak.

**2. «Ziklo politiko berria irekiz»**

Eskualdeko sindikatu abertzaleak plazaratu duen agirian, herritarrek «ziklo politiko berria» eskatzen dutela aipatzen da: «Euskal Herriak inposizio eta ukazioa besterik ez du jasan urte luzeetan, eta ukazioaren ziklo hori da behingoz gainditu behar duguna, aitortzan eta errespetuan oinarritutako ziklo politiko berria irekiz». LAB «urrats sendo eta definitiboak» ematearen alde agertu da.

**3. «Beldur da Estatua»**

Alde batetik ibilbide berri hori non eta nork egin behar duen argi du sindikatu abertzaleak: «Euskal Herrian eta euskal eragile politiko eta sozialen arten egin behar dugu».

## «Erasoen gainetik» LAB sindikatuak aldaketaren aldeko apustua egiten duela jakinarazi du

Bestalde ordea, «beldurrak» eraginda zailtasunak ikusten ditu LABek: «astearteko atxiloketak bide hori zapuzteko asmoz egin dituzte. Ezker abertzaleak egin ditzakeen eta egingo dituen eskaintza politikoak indargabetzea izan dute helburu. Euskal Herriak bere buruaren jabe izan nahi du eta horren beldur da Estatua».

**4. «Langileontzat bereziki»**

Aldaketa politikoa gauzatzea, langileontzat «bereziki garrantzitsua» dela uste du LABek: «Langileok alternatiba estrategiko bat behar dugu, enpresarien eta kapital interesen morroi hutsak bihurtzen gaituen gaurko eredu ekonomiko eta sozialaren aurrean. Alternatiba hori guk geuk sortu eta eraiki behar dugu. Eta horretarako, ezinbestez, gure etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea errespetatua izango den ziklo politiko berria bultzatuko dugu».

**5. «Aukera nahi dugu»**

Sindikatuak «gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea emango digun marko demokratikoa osatzeko» aukera nahi du; «mugarik, injerentziarik eta biolentziarik gabe aldaketa politikoa gauzatzeko aukera izan behar du Euskal Herriak. Hori da gaur gaurkoz, euskal eragile politiko eta sozialen indarrak bilduz eraiki behar dugun eszenatokia. Erasoen eta Estatuak jartzen dizkigun mugen gainetik».

**6. «Langileria kalera»**

Adierazpenaren azken puntuan deialdi bat zabaltzen die langileei sindikatuak: «Kalera ateratzea eta bide horretan urratsak emateko borroka egitea eskatzen diegu euskal langileei».

### » ELKARRETARATZEAK

**Gaur, hilak 16**

- **Ibarran.** 13:00etan anbulategi aurrean.
- **Tolosan.** 12:00etan udaletxe aurrean.
- **Villabonan.** 12:00etan udaletxe aurrean.
- **Zizurkilen.** 12:00etan udaletxe aurrean.

### LEITZAKO GAZTE EGUNA BERTAN BEHERA

Gazte Independentistek bertan behera utzi dute bihar Leitzan egitekoa zuten Gazte Eguna, izan ere, bat egin dute bihar Donostian egingo den manifestazioarekin.



# «Konponbide demokratikoarekin»

**TOLOSA** ● Donostian, Iruñean eta Hernanin ezker abertzaleko 10 kide atxilotu zituzten astearteań. Tolosaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak manifestazioa egin zuen atzo Tolosan, atxilotuen askatasuna eskatuz. 150 lagun inguru elkartu ziren. Amaierako irakurketan, «atxiloketek Espainiako estatuaren ahultasun politikoa» agerian utzi dutela esan zuten eta «konponbide demokratikoaren alde» agertu ziren. A.I.

# Egitarau zabala prestatu dute etzi egingo duten II. Azoka Berezirako

**Zizurkil** » 11:00etatik aurrera Zizurkil Goian baserritarrak eta artisauak bisitarien zain egongo dira produktuak saltzeko.

ENERITZ MAIZ

Etzi, igandea, Zizurkilgo XII. Azoka Berezia, Zizurkil Goian ospatuko dute. Atzo Udaleko ordezkariek 12. urtez jarraian antolatu duten azoka aurkeztu zuten. Postu ugari, bazkaria, ardo dastapena, haurrentzako jolasak eta musika ez dira faltako egun guztian zehar.



Udal ordezkariek, udaletxeko batzar aretoan aurkeztu dute XII. Azoka Berezia. E. MAIZ

### Bertako produktu freskoak erosteko aukera

Udaleko ordezkariek, bertako baserritarren lana goraipatu nahi izan zuten eta bide batez, beraien lana eskertu. Herritar nahiz kanpotik bertaratuko diren guztiei «asteko erosketa egiteko aprobetxa dezatela eskatu nahi diegu. Bertako produktu asko eta gainera eta kalitate onekoak izango baitira bertan. Ez da bakarrik postuak begiratzea, baizik eta erostea», azpimarratu zuen Maria Angeles Lazkano alkateak.

Artisau postuak 24 izango dira guztira. Zizurkil bertakoak: Patxi Otegi, Harria eta Egurrarekin, Pili Ugartemendia Gurutze puntuko kuadroekin eta Ander Geresta Egur tailarekin izango dira. Bestalde, Leitzatik Guenther Woischwill animali balantzinak eta Tolosatik, Arantxa Munita Zeramika lanekin. Gainerakoak, besteak beste, Usurbil, Bedia, Gasteiz, Abadiño, Kaskante, Santurtzi, Askain, edota Hernanitik datoz.

Janari postuak berriz, 31 izango dira eta horietatik 9 zizurkildarrak dira: Andrezketa baserria, Iruña baserria, Loidi baserria, Menditarte baserria, Olatza baserria, Ugarte baserria eta Garazi Loreak baserriko produktuak izango dituzte. Pello Argaiak erlezaintzako produktuak izango ditu eta Ogi Zurik gozogintzakoak. Eskualdekoen artean, Leaburuko Mahalako produktuak eta Asteasuko Lurlan baserrikoak izango dira. Gainerakoak, Errezil, Aia, Lezaun, Baigorri, Llanes (Asturias), Lekunberri, Bassussarry edota Mallabiatik etorriko dira.

### Herriko txahala bazkaltzeko

Artisau postuak, frontoian jarriko dituzte eta janari postuak plazatik hasi eta udaletxera bitarteko kalean egongo dira. Goizean, herrikoak, kantu jiran ibiliko dira euskal abestiak abestuz giroa alaitzen. Arratsaldean berriz, La Parrus Dixie Band-ekoek hartuko diete txanda.

Bazkaldu aurretik, 13:00etan Zizurkilgo janari postu onenari, *Zizurkilgo Azoka Bereziko Saria* emango zaio. Saria, herriko postuen artean banatuko da. Gainera, 12:15etan euskaraz eta 18:00etan gazteleraz, ardo dastapen komentatua izango da.

Bazkaritarako, bertako baserrikoa den txahala erreko dute. «125 lagunentzako erreko da eta txartelak gaurtik jarriko dira salgai. Egunean bertan ere erosteko aukera izango da». Txartela, 15 euroren truke erosi ahalko da.

Bukatzeko, autobus zerbitzua erabiltzeko deia luzatu dute. Autoa alde batera utzi eta Zizurkil Goia igotzeko «garraio publikoa erabiltzea gomendatzen dugu eta egun guztian zehar, autobusa doan izango da. Bulandegi bideko errotondan edo Zubiaurretxon hartu eta Zizurkil Goiko Plazara eramango du jendea», azpimarratu zuten.

### » XII. ZIZURKILGO AZOKA BEREZIA

**Egitaraua**

- **11:00-14:30 / 16:30-19:30.** Baserriko produktuak eta artisauak.
- **11:00.** Kantu jira. Azoka euskal kantez girotuko dute.
- **12:00.** Haurrentzako jolasak Udaletxe aurrealdean.
- **12:15.** Ardo dastaketa komentatua euskaraz.
- **13:00.** Zizurkilgo Azoka Bereziko Saria.
- **14:30.** Txahal erre jatea Zimiterion.
- **17:00.** Haurrentzako poniak eta jolasak.
- **18:00.** Ardo dastaketa komentatua gazteleraz.
- **Arratsaldean zehar.** La Parrus Dixie Band taldea giro alaitzen ibiliko da herrian zehar.

**Postuak**

- **Artisauak.** 24 postu: egur taila, zeramika, larrugintza, animali balantzinak, txalaparta-kajoi eta perkusio txikia, kosmetika eta zeta naturala, grabatu artistikoa, bitxigintza, sendabelarrak, teila margotuak, olibo-egur taila, makramea, xaboi naturalak, zumezko zestoak, beirazko bitxiak, harria eta egurra, papera, forja-lana, landare aromatikoen zakuak eta gurutze puntuko kuadroak.
- **Janari postuak.** 31 postu: baserriko produktuak, erlezaintza, esneki eta txerrikiak, gozogintza, gazta, perretxikoak eta boilurrak, ogiak, ardoak eta ahatekiak.
- **Bestelakoak.** Zizurkilgo Udala, Pedro Maria Otaño Herri Eskola, Talo Solidarioak El Salvadorrreko Segundo Montesen alde, Tolosaldea Tour, Bidezko merkataritza eta San Millan Eskola.

**Autobusa**

- **Doan.** Egun guztian zehar Bulandegi bideko errotondan edo Zubiaurretxotik hartu eta Zizurkil Goiko Plazara igoko da.

# Talentu berriak aurkitu nahian Asvineneak ikastaro trinkoa antolatu du

**Aduna** » Urriaren 24 eta 25ean izango da 90 euroren truke. Izena emateko azken eguna urriaren 19a da.

E. MAIZ

Asvinenea-Gipuzkoa inprobisazio taldeak, talentu berriak bilatu nahian, inprobisazioko ikastaro trinkoa antolatu du, Jule Garciaren eskutik.

Urriaren 24 eta 25ean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da Asvinenean bertan (Zubitxiki industriagunea, Aduna). Ikastaroaren kostua, 90 eurokoa da eta bi egunetako bazkaria prezioaren barruan dago. Izena emateko azken eguna, urriaren 19a da. Drama, komedia, tragedia... inprobisazioan guztiak dira posible. Bat-batekotasuna, hitzak dioen moduan, ikasketarik eta prestaketarik gabe zerbait egitea da. Ikastaro honetan izena emateko, ez da beharrezkoa esperientzia izatea, «bat-batekotasuna pertsona bakoitzaren barruan jaiotzen baita».

# Oporretatik bueltan larunbatean Herria Kantuz Berdura Plazan

ERREDAKZIOA

Udako oporretatik bueltan, indarberriturik dator Herria kantuz. Urriaren 17an, lehen saioa egingo dute Villabonan. Aurreko saioetan bezala, hitzordua Berdura plazan izango da 12:00etan. Antolatzaileek, bertara joateko gonbita luzatu diete abestea gustuko duen jende guztiari. Abestiak abestuz, umore alaiean, une atsegin batez gozatzeko aukera izango da. Bestela, nola abesten duten entzutera gerturatu besterik ez dago.



# Urrezko Aizkolari Txapeldunen ligako finala izango da bihar

**Leaburu-Txarama »** Anjel Arrospide ariko da Floren Nazabal, Donato Larretxea eta Juan Jose Lopez Azpilikuetarekin batera.

**ERREDAKZIOA**

Bihar izango da Urrezko Aizkolari Txapeldunen ligako finala Altsasuko (Nafarroa) Burunda pilotalekuan 18:30etik aurrera.

Finalean lehen lau sailkatuek hartuko dute parte, hau da, 28 puntu banarekin sailkapeneko buru diren Floren Nazabal eta Donato Larretxea, 19 puntu dituen Leaburuko Anjel Arrospide eta Juan Jose Lopez Azpilikueta 16 punturekin. Final interesgarria izango da, hortaz, biharkoa, lehen bien arteko berdinketa dela eta. Lau finalistek 36 enbor ebaki beharko dituzte, bost modu desberdinetan.


**Arrospide ariko da bihar.** I. TERRADILLOS

Finalean, modalitate batetik besterako tartean, Joxe Lapazaran, Jose Mari Mendizabal eta Iñaki eta Iñaxio Perurenak marka berriak egiten ere saiatuko dira, baikoitza berean.

**Marka berriak**

Joxe Lapazaran lastoa altxatzen marka hobetzen saiatuko da. Lau minututan 45 kilotako fardela zazpi metrotara zenbat aldiz altxatzen duen ikusi ahal izango da.

62 urtetako Jose Mari Mendizabalek, bere aldetik, bertikalean 80 zentimetrotako enborra moztuko du.

Bukatzeko Iñaki Perurenak 110 kilotako harri borobila bizkarrean hartuta 100 metro egingo ditu, eta Iñaxio Perurenak, aldiz, erakustaldietan erabiltzen duen harririk astuenarekin, 280 kilokoarekin, marka berria egiten saiatuko da.

# Maria Luisa Agirre medikua omenduko dute Donostian

**Leaburu-Txarama »** Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko kideek antolatu dute ekitaldia gaurko 20:00etan.

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak Leaburun bizi den eta 90 urte dituen Maria Luisa Agirre mediku tolosarra omenduko du gaur Donostiako egoitzan 20:00etatik aurrera.

Maria Luisa Agirre elkargoko Ohore Elkargokidea da eta berarekin batera beste hamaika Ohorezko Elkargokideri ere diplomak banatuko dizkiete. Ez da Agirre omentzen duten lehen aldia, Tolosan eta Leaburun ere eskaini izan dizkiote eta.

Tolosan eta inguruko herrietan pediatra gisa aritutakoa da Agirre.


**Leaburuko omenaldia.** HITZA

# Ibarrako hiru kultur lantegi betetzeke

**ERREDAKZIOA**

Ibarrako kultur lantegietako arduradunek argitu dutenez, oraindik ere hiru tailerretan izena emateko aukera dago. Hauek dira lantegiak: aretoko dantzak, errestaurazioa eta masajea.

Aretoko dantzen ikastaroa aurreko urtekoaren jarraipena da eta ostegunetan izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara. Kurtsoak 127,89 euro balio du. Errestaurazioa, berriz, astelehen eta asteazkenetan izango da 19:00etatik 21:00etara eta 159,18 euro balio du. Masajea astearteetan eskainiko dute, 18:30etik 20:30era, eta 127,89 euro balio du.

# Ezker Hormako partidak Villabonan eta Tolosan

**ERREDAKZIOA**

Ezker hormako IV. Emakumea Pilotari txapelketako 3. jardunaldia Villabonako eta Tolosako pilotalekuetan izango da bihar. Guztira 7 partida jokatuko dituzte 16:00etatik aurrera, hiru Villabonako frontoian eta gainontzekoak Beotibarren. Jardunaldiari 2. mailako neurketekin ekingo diote eta lehen mailako partidekin itxi. Tolosaldeatik Ainhoa Garmendia alegiarra eta Itsaso Urkizu berastegiarra, Maider Mendizabal anoetarra eta Nagore Arozena lizartzarra ari dira txapelketan. Zizurkileko Maitane Aburuza ere ari da lehen mailakoen ordezko bezala.

# «Hiru aukera ditut; absoluzioa eta 2 edo 6 urteko espetxe zigorra»

**PEIO OLANO ›** Lizartzarra

**Lizartza »** Bi urteko espetxe zigorra ezarri eta gero eskaera berriak egin dituzte; 15 egun barru izango du erantzuna.

**REBEKA CALVO**

Peio Olano lizartzarra Espainiako Auzitegi Gorenaren ebazpenaren zain dago. Pasa den otsailean Espainiako Entzutegi Nazionalak bi urteko espetxe zigorra eta 12.000 euroko isuna ezarri zion ustez Lizartzako PPko Regina Otaola alkateari «herio-mehatxuak» egiteagatik. Asteartean, aurkeztutako helegiteak eztabaidatzeko izandako bistan, hala ere, zigorra areagotzeko eskaera egin zuen Otaolak.

**Regina Otaolak eta Auzitegi Goreneko fiskalak bi urteko espetxe zigorra sei urteetara luzatzeko eskaera egin du, hain justu Entzutegiak berak bertan behera utzitakoa, espero al zenuen luzapen eskaria?**

Espero bai, tamalez. Beraiek ere epaiketako erabakiarekin ez ziren ados geratu eta horregatik sartu zuten helegitea. Orain dela zazpi hilabeteko epaiketa eta gero bai guk eta baita beraiek ere helegiteak aurkeztu genituen, asteartean Goreneko bistan eztabaidatu zituztenak, eta alde bakoitzak bereari eutsi zion.

**Zer eskatu dute?**

Sei urteko espetxe zigorra, destierroa eta kargu publikorik ezin hartzea eskatzen dute. Guk absoluzioa eskatzen dugu, noski.

**Noiz izango duzu erabaki definitiboa eta zein erantzun espero duzu?**

Hamabost bat egun barru izango dut erantzuna. Normalean helegiteetako eskaerak baino, aurreko erabakiak berresten dituzte, kasu honetan bi urteko espetxe zigorra eta 12.000 euroko isuna, baina herri honetan ezer normala ez dagoenez, auskalo. Hiru aukera daude: absoluzioa, bi urte eta 12.000 euroko isuna edota azken eskaera hirukoitz hau.

**Zertan oinarritzen dira Otaolari heriotz-mehatxua egin zeniola baieztatzeko?**

Regina Otaolaren beraren hitzetan. Epaiketa honetan nire hitza eta berea dira nagusi.

**Lau urterako Martuteneko espetxean dagoen Kontsuelo Agirrebarrena herrikidearen kasua ere gogoratu izan duzu.**

Bere aldeko mobilizazio asko egin ditugu. Aurreko igandean ere 60 bat lagun joan ginen Martutenera eta jada erabaki dugu hileko lehen igandeetan 12:00etan Martutenen elkarretaratzea egitea berari elkartasuna agertzeko.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**
**DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

**HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com

Astearte arratsaldeko 15:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com / 943-65 56 95telefono zenbakira

## 1 Etxebizitza

### 1.1 SALGAI

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Beasainen: 105 m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoia eta terraza. la berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektrogailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta informazio gehiago *www.ttiki.com/6609* Telefonoa: 656-73 11 43

**Berriatua.** Etxebizitza salgai Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 94-616 64 19 edo 94-613 90 56 telefonoetara.

**Ordizia.** Guztiz eraberritutako pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia eta trastearoarekin. Interesatuek deitu: 620-45 79 73 (telefonoz bakarrik jarri kontaktuan mesedez).

**Orio.** Etxebizitza salgai Orion. 3 logela, igogailua, sukaldea dena jarrita, armairu enpotratua eta trastelekua ere bai. 47.000.000 pezeta, negoziatu daiteke. 653-74 25 76

### 1.2 ERRENTAN EMAN

**Lazkao.** Logela bat alokatzen da Lazkaoko pisu batean. Deitu 678-22 80 31 telefonora, edo bidali mezua: *lalianzuinelli@hotmail.com*

### 1.3 ERRENTAN HARTU

**Ataun.** Etxebizitza behar da alokairuan Ataunen. Pertsona helduak. Deitu: 665-70 53 73

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Telefonoa: 658-70 19 53

**Tolosa.** Tolosa edo Tolosaldean pisu bat hutsik baduzu, gustura alokatuko nizuke. Baratzea jartzeko tokia badu gainera askoz hobe. 626-73 70 49.

### 1.4 PISUA KONPARTITU

**Donostia.** Amaran, Topo eta autobus geltokitik hurbil gela bat alokatzen da emakume euskaldun batentzat. Berdin ikasle edo langile. Pisua konpartitua da eta gehienez 3 lagunekoa. Gela argitsua, balkoiarekin eta gelan telebista dauka. 943-65-16-92.

**Donostia.** Gela alokatzen dut Egia auzoko etxe batean, irailaren 26tik ekaina bitartean. Etxea oso txukuna da, eta baita gela ere: ohe bikoitza, silloia eta armarioa. Gladys Enea parketik eta Tabakaleratik oso gertu. Bakarrik bizi naiz. *sansebastian70@yahoo.es*. Mila esker.

## 2 Motorra

### 2.1 SALGAI

**Citroen Xsara 1.9 D salgai.** 1998koa. 166.000 km. Oso egoera onean. 1.200 euro. 629-15 79 29

**Honda Varadero motorra salgai**. 1.000 cc. 2006koa. 10.000 km. 615-76 49 14

**Peugeot 206 autoa salgai.** 7 urte dauzka. Oso prezio onean. 699-57 43 51

## 3 Garajeak

### 3.1 SALGAI

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santakrutz 25-27an. 630-46 36 71

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686-02 56 56

### 3.2 ERRENTAN EMAN

**Eibar.** Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Apalekin. Prezio interesgarria. Telefonoa: 630-39 11 12.

## 4 Lana

### 4.1 LAN BILA

**Goierri.** Neska arduratsuak eta eskarmentu handikoak, garbitzaile lanetan, zerbitzari bezela edota adineko pertsonak zaintzen lan egingo luke. 628-21 75 27.

**Irura.** Giza elikadura eta dietetikan diplomatua naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Irati 697-52 20 48

**Tolosaldea.** Bigi garbitasunak: Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze: 638-94 46 04 eta Belen: 695-70 82 71.

**Tolosaldea.** Emakume euskalduna, arduratsua eta esperientzi handikoa eskaintzen da egunez zein gauez adineko pertsonak edo gaixo daudenak zaintzeko. Gida baimena eta autoa baditut. 943-57 74 09 eta 680244281. Erreferentziak ere baditut. *mariapilargarmendia@gmail.com*.

**Tolosaldea.** Tolosaldeko neska bat nahiz eta astegunez arratsaldeetan lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen, tabernan... 616-07 70 06.

### 4.2 LANGILE BILA

**Goierri.** Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609-41 38 97

**Tolosa.** Tolosan, arratsaldetan 3 ume zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. 630-98 43 00.

## 5 Irakaskuntza

### 5.1 EMAN

**Busturialdea.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Printzipioz Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik. 680-53 84 42

**Gabiria.** Banan-banako tailer praktikoak izango dira. Asteartetan, 17:00etatik aurrera. Amalur tailerra. Telefonoa: 943-16 14 76

**Gernika.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak ematen ditu Gernikan Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656-77 20 12 (Nahia).

**Irun.** Kemen euskal dantza taldeak fandango, arin-arin eta plaza dantzen ikastaroa antolatuko du urriaren 10ean hasi eta abendura bitarteko larunbatetan. Interesatuok hurrengo telefonora dei dezakezue informazio eske: 667-553698. Ander.

## 7 Denetarik

### 7.1 SALGAI

**Altzariak salgai.** Etxe aldaketagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxeko etxetresnak. Denak batera (prezio hobean) zein banaka. Oreretan. Informazioa eta argazkiak: *mikel_muebles@live.com* edo 943-00 23 11

**Aluminiozko llantak kubiertekin saltzen ditut.** Neurriak: 185/60 R14 638-10 29 63

**Ardiak salgai.** 150 ardi saltzen dira, latxa arrazako 300 ardi gaztez osatutako artalde batetik. 606-04 44 36 edo 943-88 09 45

**Berogailuak.** Ecotermi etxeko 5 berogailu salgai. Bata, Ecotermi 570 w 5 difusore 100 e; hiru, Ecotermi 600 w 5 difusore 150 e/bak; eta bestea, Ecotermi 1000 w 9 difusore 200 e. Egoera onean. Guztiak 750 eurotan. 605-77 54 64

**BH bizikleta salgai.** 2009koa eta errepidekoa. Campagnolo freno eta osagaiekin. Egoera oso onean. 617-89 34 15

**Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai.** 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649-00 53 42

**Egurra salgai moztuta.** Beheko surako edo txaparako. Aramaion. 617-27 74 64 edo 945-44 51 11

**Fox Terrier txakurkumeak salgai.** Abuztuaren 15ean jaiotakoak. Arra eta emea, buztanak moztuta eta parasitorik gabe. Telefonoa: 635-74 16 55.

**Giant bizikleta salgai.** Errepidekoa. 56 neurrikoa. Gutxi erabilia. 4.000 km. 600 euro. 656-75 35 86

**Gitarra akustikorako pedalera salgai.** Erdi prezioan. 943-77 19 20

**Kanarioak salgai.** Interesatuek deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635-75 54 53

**Kawasaki Z750 salgai .** 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. 660-33 77 16.

**Korrika egiteko zinta.** BH Argon markakoa. Gehienezko abiadura 18 km/orduko. Gehienezko pendetza %15. 550 euro. Deitu 635-69 82 63 telefonora.

**Liburu zaharrak.** 1953. urteko liburuak saltzen ditut. 696-84 19 51

**Masaje aparailua.** Hankak urarekin masajeatzeko aparailu elektrikoa salgai. 608-36 26 07

**Monozikloa saltzen dut.** Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605-73 07 77

**Ohe artikulatua salgai.** 2007koa, egoera onean. Prezio interesgarria. Deitu 685-75 45 42.

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650-96 23 08

**Routerra.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. 608 -36 26 07

**Stokke kuma eta minikuma moldagarria salgai.** 2 koltxoi, eltxo-sarea eta izarak barne. 0 hilabetetik 5-6 urtera arte moldatzen da, egoera oso onean. Prezioa 330 euro. 639-02 02 75 edo 943-76 55 88

**Terrazako aulkiak salgai.** Terrazako 28 aluminiozko aulki salgai. Taberna eta kafetegietarako egokiak. 665- 75 26 07

**Txakurrak eramateko kaxa salgai.** Txakurrak autoan eramateko kaxa. Estreinatu barik. Bi txakurrendako modukoa. 639-37 22 99 edo 659-77 03 33

**Umeendako aulkia.** Jane etxekoa. Hiru erruberakoa. Frenoarekin. 80 euro. 608-36 26 07

**Umeendako karroa salgai.** Jane markakoa. Hiru gurpilekoa, eta frenoa. la berria. Prezioa interesgarria. 100 euro, negoziagarria. 608-36 26 07

**Yorky kumeak salgai.** Yorkshire kume lot (miniatura) eme zein arrak salgai prezio interesgarrian. Jaiotze data 2009-10-11.

### 7.2 GALDU

**Afrikar loroa galdu da Intxaurrondon.** Afrikar loro grisa galdu da Hego Intxaurrondon, Sagastiederren. Grisa da eta buztan gorria dauka. Hankan eraztuna ere jarrita dauka, eta Travis du izena. Inork ikusi edo aurkituko balu, deitu mesedez, 667-34 90 31. Iker.

### 7.4 EMAN

**Administrari laguntzaileak.** Administrari langutzaile bezala lan egiteko lanpostuak bete behar dira gipuzkoako udaletxeetan. Deitu: 671-68 98 69

**Banku eta aurrezki kutxetarako lanpostuak.** Bankuek eta aurrezki kutxek bete gabeko lanpostuak betetzeko langileak behar dituzte. Deitu: 943-21 86 85

**Elektrikariak, iturginak, igeltseroak....** Elektrikariak, iturginak, eta igeltxeroak behar dira orokorrean Gipuzkoako udaletxeetan lan egiteko. Deitu: 943-21 86 85

**Eraikin publikoak zaintzeko zaindariak.** Eraikin publikoak zaintzeko zaindariak behar dira. Ez da titulaziorik eskatzen. Txandaka lan egiteko. Deitu: 600-94 48 27

**Eraikin publikoetarako garbitzaileak.** Eraikin publikoetarako garbitzaileak behar dira.Lanaldi jarraitua eta kontratu mugagabea. Deitu: 943-21 86 85

**Erakunde publikoetarako auto gidariak.** Erakunde publikoetan lan egiteko auto gidariak behar dira. Soldata altua eta kontratu mugagabea. Deitu: 671-68 98 69

**Harrerarako langileak.** Harrerako langileak behar dira, eraikun publikoetako harrerako eta telefonista lanak egiteko. Deitu: 943-21 86 85

**Konserjeak eta bedelak.** Eraikin publikoetarako konserjeak eta bedelak. Arratsaldeak jai. Deitu: 671-68 98 69

**Liburutegi laguntzaileak.** Eraikin publikoetako liburutegi laguntzailerako lan poltsa handia. Deitu: 600-94 48 27

**Suhiltzaileak eta basozainak.** Suhiltzaileak eta basozainak behar dira. Deitu: 943-21 86 85

**Udaltzainak.** Udaltzainak behar dira. Lan poltsa handia. Deitu: 671-68 98 69

**Zaintzaileak.** Eskoletarako, jangeletarako eta haurtzaindegi publikoetarako zaintzaileak. Arratsaldeak jai. Deitu: 943-21 86 85

**Zaintzaileak, konserjeak, garbitzaileak...** Haur eskola publikoek zaintzileak, konserjeak eta garbitzaileak behar dituzte. Deitu: 600-94 48 27

### 7.5 HARTU

**Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan.** Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Deitu: 634-46 41 69

### 7.6 HARREMANAK

**Astegunetan bakarrik zaude?** Lan-ordutegi bereziagatik bakarrik bazaude, elkar ezagutu genezake. 45 urteko gizonezkoa, 20-50 urte arteko mutil/gizon lagun euskaltzaleen bila Zestoan, Azpeitian edo Azkoitian. Helburua: astegunetako bakardadea uxatzea, nire egoeran dagoen norbaitekin. Telefonoa: 605-73 49 83 Txantxak saihesteko, idatzizko mezuak bakarrik erantzungo ditut.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Emakume bila.** Oso ondo mantenduta dagoen 60 urteko gizonezko idazle dibortziatuak 40 urte baino gutxiago dituen emakumea ezagutu nahi du. Seme-alabarik izanez gero, haiek hezteko konpromisoa, baita familia ere. 699-58 79 28. Hitzordua jartzeko, egin dei galdua.

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako, interesatuak idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbidera

### 7.8 ERRENTAN HARTU

**Alokairuko taberna baten bila.** Taberna bat errentan hartuko nuke Getarian edo inguruko herriren batean. Telefonoa: 647-48 62 32

**Taberna hartuko nuke errentan.** Taberna hartuko nuke errentan. 638-10 29 63

Ikolan
ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
Senpere,7 (zentru komertziala)
BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

BASAULA
Landa etxea
astebukaera
(2 gau)
270 euro

(6 pertsona + 2 ohe osagarri)
3 logela bakoitza bere komunarekin, sukaldea, jantokia, egongela, loratagia parrilarekin, wi-fi eta berogailua.
Muneta (Nafarroa) • tel:606-04 16 89
www.basaula.com




Etxebila higiezinak
943-44 61 66
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. kanpora begira. Polita. 36.900.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 38.625.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Altua. 43.500.000
**AMARA OSINAGA** Apartamentu berria. Altua. Garajea. 53.800.000
**AMARA** 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.900.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000
**ALZA** 3 logela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 29.990.000
**GROS** Itsasoari begira. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. 49.500.000
**EGIA** Duke Mandas. 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 49.990.000
**EGIA** 3 logela, egongela, sukalde, bainugela. Balkoia. Igogailua. 37.500.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 37.500.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 24.900.000
**MARTUTENE** Balkoia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 34.300.000
**MARTUTENE** 100m2. 3 logela, 2 bainugela. Balkoia. Igogailua. 48.950.000
**LASARTE** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 33.500.000
**PASAI ANTXO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 25.950.000
**PASAI DONIBANE** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Bistak. 33.400.000
**ERRENTERIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 36.500.000
**ALOKAIRUAN**
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 850€
**USURBIL** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Jardina. 650€
**GARAJE SALMENTA**
**AMARA** Amara Osinaga. Garaje ederra. 3.960.000
www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza .info

**2009-10-16 Eguraldia**

| Goiza | Arratsaldea | Tenperatura | Bihar | |
|---|---|---|---|---|
| Eguzkia | Eguzkia | ↑ 11° ↓ 4° | GOIZA | EGUZKIA |
| | | | ARRATS. | EGUZKIA |
| | | | BEROENA | 13° |
| | | | HOTZENA | 2° |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
**Webgunea:** www.tolosaldekohitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): 902 82 02 01

## A Agenda

### Deialdiak

- **Alegia.** Odola emateko aukera sendagilearen etxean 19:00etatik 21:00etara.
- **Alegia.** Loatzo Musika Eskolaren batzarra 20:00etan Kultur Etxean.
- **Anoeta.** Euskal Jaiaren balorazioko bilera udaletxean 18:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

### » IRRATIA

**Txolarre irratia**

**10:45-11:00.** Elhuyar Fundazioaren Quark saioa.
**11:00-13:30.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.
**13:30-14:00.** Albistegia – Info 7.
**14:00-15:00.** Tolosaldeko Albistegia.
**17:00-17:45.** Musika nobedadeak.
**17:45-18:00.** Elhuyar Fundazioa Quark saioa.
**18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).
**20:00-20:30.** Albistegia, Info 7.

### » TELEBISTA

**28 kanala**

**08:30.** Artegintza **09:00.** Alex eta Alexis **09:30.** Tolosaldean Gaur **10:00.** Kafe t'erdi **10:30.** Erloklip **11:00.** Aizkolariak **11:30.** Tolosaldean Gaur **12:00.** Klipak **13:00.** Muka-Muka **13:30.** Tolosaldean Gaur **14:00.** Kafe t'erdi **14:30.** Erloklip **15:00.** Aizkolariak **15:30.** Tolosaldean Gaur **16:00.** Klipak **16:30.** Zahar berri **17:00.** Muka-Muka **17:30.** Tolosaldean Gaur **18:00.** 28 klip **18:30.** Ilunpean **19:00.** Klipak **19:30.** Tolosaldean Gaur **20:00.** Saio Berezia: Surf txapelketa. *(16:30etik 20:30era bitarteko blokea lau orduro errepikatuko da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Emaitza ere etxean ikusteko aukera

**Musika** » Bide Ertzean taldearen 'Leidor Sessions' CD-DVDaren proiekzioa izango da ikusgai hilaren 23an, Leidorren, doan.

**ERREDAKZIOA**

Bide Ertzean taldeak 10. urteurrena modu berezian ospatzeko zuzenekoa eskaini zuen urtarrilean Leidor aretoan. Kontzertu hori CD-DVDa egiteko baliatu nahi zian zuten, eta *Leidor Sessions* izeneko emaitza kalean da dagoeneko.

Hala, kontzertuko abestiez gozatzeko aukera izateaz gain, DVDan emanaldiko irudiak ikus daitezke, eta baita Bide Ertzeanen ibilbidean bidelagun izan dituzten artistei eginiko elkarrizketak ere.

Bada, lan hau hasi zen lekura itzultzen da berriro ere Tolosako taldea, izan ere, DVDa Leidor aretoan izango da ikusgai, datorren ostiralean, hilaren 23an, 20:30ean, doan.


Ezker-eskuin: Karlos Aranzegi, Imanol Ubeda eta Joni Ubeda, atzo Tolosako Kultur Etxean. I.T.

## A Agurrak


**Urte askoan!**
**Ametz.** Gaur 9 urte. Zorionak! Eta muxu handi bat familiaren partetik.

**agurrak**

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TX saridunak sarrerak

**Gazte Eguna**

Antolatzaileek larunbateko Leitzako Gazte Eguna bertan behera uztea erabaki dute azken atxiloketak direla eta 17:00etan Donostian egingo den manifestazio nazionalaren deialdiarekin bat egiten dutelako.



harpidedunen TXOKOA hitza

◦ Markel Etxeberria (Tolosa)
◦ Mikel Izagirre (Tolosa)

**Cocidito Madrileño 2**

Urriak 17 ◦ Larunbata ◦ 20:30ean
Tolosako Leidorren

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

